

BALEIKE

270. ZENBAKIA. EURO BAT
2017ko AZAROA

www.baleike.eus



HEZTEKO HAZTEN

BALAY
3SC871B

319€

Kondentsazioa

7 kg

B

INDESIT
IS41V

219€

Lurrun irteera

4 kg

C

BEKO
DV7110

239€

Lurrun irteera

7 kg

C

BALAY
3SB285

449€

Kondentsazioa

8 kg

A+

BOSCH
WTG87228EE

549€

Kondentsazioa

8 kg

A++

LEHORGAILUEN
ESKAITZA

Ordaindu 10 hilabetea
INTERESIK GABE

AEG
T8DBG842

599€

-%10 bueltan

Kondentsazioa

8 kg

A++

PANASONIC
NHP8ER1WES

699€

Kondentsazioa

8 kg

A+++

MIELE
TDB220WP

799€

Kondentsazioa

7 kg

A++

 TIEN 21



ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endañetazumaia.com



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.eus

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkartea@baleike.com

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Maialen

Odriozola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet,

Peio Romatet, Arnaitz Rubio Aprea, Iosu Alberdi,

Jose Manuel Castillo, Jabi Gonzalez Toston,

Izaskun Urbieta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

publizitatea@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

7

baleike +

URTEETAKO BORROKAK EKARRI DITU LORPENAK

4

iritzia

AGUR, KATALUNIA!!

13

iruditan

IMANOL MANTEROLA
ARGAZKILARIA

20

elkarrizketa

JOSERRAREN ETA
MARIPIREN AZKEN Balsa

27

musika

SARGO

30

agenda

AZAROA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udalak



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



AGUR, KATALUNIA!!

OIER ZEBERIO MAIZTEGI. • POLITOLOGOA

“Votarem! Votarem!” oihuekin esnatu nintzen urriaren 1ean. Goizeko oihu eta lelo indartsuak, egun berezi baten lehen notak ziren. Errepublika berri baten lehen adreilua ezarriko zen eguna zen. Egun guztian zehar, lagun eta laguntzaileen borondate onari esker, bertako errealitatea bizitzeko aukera eduki nuen. Polizia espainiarrak goizean goiz egin zituen eraso bortitzek tentsio egoera orokortua eragin bazuten ere, bisitatu nuen botoa emateko gune bakoitzean errealitate berdina ikusten zen: poza eta ilusioa. Zerbait berria eraikitzearen sentsazioak guztia ukitzen zuen. 2015eko irailaren 27an egin ziren hauteskundeetan, argi eta garbi geratu zen gehiengoaren nahia zein zen. Urriaren 1ean, salbues-

pen egoeran eta oztopo guztien gainetik, herria kalera irten zen eta bozkatu egin zuen. Herritarren aurka izan ziren erasoak denbora mugatuan izan baziren ere, irudiek mundu osora zabaltzen ziren. Egun hartan, Espainiak bi borroka galdu zituen: politiko-soziala (erreferenduma egin zen) eta mediatikoa (irudiek inpaktu handia izan zuen nazioartean). Kataluniako herriak (egiazko) demokrazia irakaspen garrantzitsua eman zion egun hartan Espainiari eta munduari.

1978tik gaur egun arte ikusi dugun bezala, espainiar Estatua kalitate baxuko demokrazia da. Des-demokratizatzeko joera nabarmena duena, gainera. Hasteko, boteregune ezberdinetan kokaturiko elementu kontserbadoreek eragiteko indar eta gaitasun handia dute. Zentzu horretan, neurri eta elementu errepresiboen manifestazio garrantzitsua bizi izan eta bizi dugu. Elementu horietako asko ez dira inoiz hauteskundeetara aurkezten, baina Es-

painiaren barne ekintza politikoan pisu nabarmena dute. Beste batzuek, berriz, joko demokratikoan parte hartzen dute, ezkutuan jarduten duten subjektuekin elkarlanean. Botere kantitate garrantzitsua duten elementu kontserbadore horiei aukeraketa mekanismo tradizionaletatik kanpo dauden botere ekonomikoa eta beste era bateko botere guneak gehitu behar zaizkie. Horiek ez dira inoiz hauteskundeetara aurkezten, baina demokratikoki aukeratu diren instituzioek baino botere handiagoa dute. Horien nahien arabera, ageriko politikan jarduten duten aktoreek ageriko politika moldatzen dute. Laburbilduz, “Deep Stateak” in-

dar handia du Espainian. Azken urteotan indarra hartu duten indar progresisten kasuan, diskurtso aldetik sistema demokratizatzeko nahia adierazi dute. Politika instituzionalaren logika besarkatu ostean, ordea, ikusi da beraien benetako nahi demokratizatzailea oso mugatua dela. Sistemak harrapatu ditu, eta ez da espero proposamen erradikalik.

PP, PSOE, C's alderdietan ezinegon handia eragin du aldebakarreko independentzia aldarrikapenak. Horiek batu egin dira, eta Justiziaren laguntzarekin, erantzun autoritario eta errepresibo indartsua jarri dute mahai gainean. Errepublika berria ahalik eta azkarren desagertzeko aplikatu den 155. artikulua eta errepresio neurriek garbi utzi dute Estatuaren logika zein den. Alderdi morearen kasuan ere garbi geratu da (maila nazionalan) zein den beraien benetako borondate “demokratizatzailea”. Gaia joko demokratikoaren logikan konpondu beharrean, hau da, hitzartutako erreferendum bidez, Estatuak

Errepublika berria
ahalik eta azkarren
desagertzeko aplikatu
den 155. artikulua
eta errepresio
neurriek garbi utzi
dute Estatuaren logika
zein den

bere benetako izaera antide-mokratikoa erakutsi eta egi-ten dakien bakarra egin du. Demokrazia osoagoa erai-kitzeko asmoarekin, kalitate baxuko demokrazia batetik alde egin duen herrialdea da Katalunia. Errepresio eta oztopo guztiak gaindituz, demokratikoa eta sozialki aurreratua den estatu bat eraikitzen hasteko aukera dute orain.

Nazioarteko babesa ele-mentu garrantzitsua da, baita ere, prozesu honetan. Momentuz, behintzat, Eu-ropako estatu garrantzitsue-nek edo mundu mailako po-tentziek Espainiako Gobernuari eman diote babesa. Urriaren 31n, Bruselan, Puigdemontek erreakzionatzeko eskatu zion Europari. Kataluniaren kasua, Europa oinarritzen den balioen kasua zela argudiatuz, errepresioaren aurrean ezer ez egitea Europaren ideiarekin amaitzea zela baieztatu zuen. Prozesu hau hurrengo urteetan Europaren barnean leher daitezkeen beste hainbat prozesuren giltza izan daiteke, eta, ondorioz, Europak beldurra du. Horrez gain, demokratikoki gabezia garrantzitsuak dituen batasuna dela kontuan izanik, mesfida-tiak izan beharko lukete. Europa mailako indar korrelazioen aldaketa bat mesedegarria izango litzateke, zentzu horretan. Prozesuaren bilakaerak (giza eskubideen urraketa ematen bada) Europako indar ezberdinen (gaur egungo testuingu-ruan) erreakzioa eragin dezakeen arren, kataluniarrek “Help Catalonia”-ren logikatik irteten hasi beharko lukete. Hego



DAVID JULIA

Osetiak eta Abkhaziak Erre-publika Kataluniarra onar-tzeko asmoa adierazi dute, adibidez. Venezuelaren ka-suan, atea oraindik ez dago gutziz itxita, eta Israelek ere zenbait zalantza sortzen ditu. Poliki-poliki, nazioar-teko legitimitatea irabaziz, Kataluniak onarpena lortze-ko aukera du. Horretarako, ordea, beharrezkoa da aliatu berrien laguntza. Bidea lu-zea izango da, oztopo asko egongo dira, baina denbo-ran eta erabaki egokiak har-tzean dago gakoa.

Kataluniako prozesuak aukera berriak ematen di-zkigu euskaldunoi. Lehenik eta behin, Estatu espainiarrean krisi politiko garrantzitsua sortzeko aukera du. Krisi politiko horrek, Estatua posizio ahulean jarri eta bere-benetako izaera erakustera eraman dezake. Egoera horren aurrean, herri ho-netako indar abertzaleen batuketa baten bidez, etorkizune-ko alternatiba demokratikoa eraikitzen has gaitezke: Euskal Errepublika. Horretarako, lehenik eta behin, hori posible dela sinetsi behar dugu. Ideia hori barneratu ostean, azken urteotan ikusi ditugun dinamikekin jarraituz, indar abertzale ezberdinen metaketa eman behar da, loturak indartuz. De-mokratizatu ezin daitezkeen Estatu honekiko harremana ete-ten eta herri bezala gure bidea egiten hasi behar dugu. Zail-tasunez beteriko bidea izango da, baina askatasun eta eskubi-deen aldetik berme osoak edukiko dituen Estatua eraikitzeko aukera bakarra da. ■



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



diseinua inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel.: 943 14 31 22 ■ fax: 943 14 31 20
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t w i



AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarteak
Tel. 650 265 963
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

Agurtzane Okindegia



Erribera 2 • 943 862 152



AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALBERDI

dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 726188
943 143261



Amama taberna

tel.: 943 543 164
amamataverna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)



ATARI TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 Tel. 943 509 169

Ardantzabide

ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com f

Denda: Txomin Agirre, 4 Tel.: 943 862 532
Aroztegia: Santiago, 40 Tel.: 943 861 631

ARGISUN

ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Giroetzea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



OKINDEGIA

Arkupe

Nagusia 2 • tel. 943 861 501

ZUMAIA

OGI-EDER



Arruti

ARROPA DENDA

ANGELES SORAZU 1 BEHEA
943 543 406
20750 ZUMAIA (GIPUZKOA)



Bosch Service

Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943 861 485
autoszumaia@bosch-bcs.com

Azkue

www.ricardoazkue.com

Txomin Agirre 4, behea tel. 615 793 406 / 943 862 651
elena@ricardoazkue.com fax: 943 862 748



Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20740 Arroa

tel./fax: 943 148 306
bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritza

Ribaitaria Itaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310
www.basadialbaitaritza.com
www.basadialbaitaritza.com

Golez: 11-13 / Arrabaldiz: 15-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan ituta
Lamiakobako: 605 728 737 Eltxez ebeko zerbitzua



BASUSTA

erretegia • asador

José Blázquez

Pafila Etxezarreta, 25 Tel.: 943 86 20 73
943 86 04 38
20750 Zumaia (Gipuzkoa) asadorbasusta@hotmail.com



Braky's

Okindegia • Kafetegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

Urteetako borroka ekarri ditu lorpenak

BALEIKE +



Urriaren 25ean, Eusko Jaurlaritzak, Zumaia-ko Udalak eta Herri Eskolako ordezkariak eraikin berri baten albiste eman zuten prentsaurrekoan. Aitzuri frontoiaren aurrean egingo da, eta oraindik lanak noiz egingo diren zehatz jakin ez arren, gustura dira guztiak.

TESTUA: IZASKUN URBIETA ESNAL
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA ETA
GORKA ZABALETA

Herri Eskolak urteetan egin duen eskariak gauzatuko da azkenean: ikasleentzako eraikin berri bat egingo da Aitzuriko eremuan. Hori lortzeko bidea, baina, ez da xamurra izan. Ondo dakite hori Herri Eskolako zuzendaritza taldeek eta guraso elkarteetako lehendakariak.

Hain zuzen ere, beraien iritzia jasotzeko asmoz elkartu ditu **BALEIKE**k Maribel Ibarguren HH-LHko zuzendaria, Iñaki Zubimendi HH-LHko Guraso Elkartearen lehendakaria, Antton Garikano DBHko zuzendaria, Elena Sasiain DBHko Guraso Elkartearen lehendakaria, Marialui Albizu DBHko zuzendariorde ohia, Idoia Agirrezabalaga HH-LHko zuzendari ohia eta Karlos Del Pilar (2010etik 2014ra HH-LHko Guraso Elkartearen lehendakaria).

“Urte askotako borrokaren eta lanaren ondoren iritsi gara une honetara. Bidea oso luzea izan da”, azpimarratu du Del Pilarrek.

Izan ere, eraikin berriaren eskaera 2010-2011koa da. Espazio falta nabaritzen hasita, neurriak hartu behar zirela adierazi zien eskolak Udalarri eta Eusko Jaurlaritzari. “2006an, lau lerro jarri ziren lehen aldiz eskolan. Umeak ugartzearen ondorioz, hiru lerrotik laura pasa ginen”, aipatu du Zubimendik.

Sagarbideko eraikina 1998koa da, baina egin orduko konturatu ziren txiki geratuko zela. “2006an, lehenengo aldiz, 92

ume matrikulatzeko aukera eman zigun Hezkuntza Sailak. Ordu arte, 75 izan ziren. Harrezkero, eskaintako guztia bete dugu”, kontatu du Agirrezabalagak.

Sagarbideko eraikina 1998koa da, baina egin orduko konturatu ziren motz geratuko zela

Karlos del Pilar: “Guraso gisa ikuspegi global bat eman eta borroka honen alde egin genuen”.

Egokitzapenak

Hiru lerroko ikastetxea izango zelakoan egin zen Sagarbideko eraikina, baina aurreikuspenak ez ziren bete: Zumaiaiko demografia hazi, jaiotzatasia jaitsi ez eta matrikulazioak gora egin zuen Herri Eskolan. “Demografia-hazkundearen prebisioa Gipuzkoan agian bete zen, baina Zumaian ez”, kontatu du Zubimendik. “Maila batean hiru gelatik laura pasatzeak zer dakar? Urte batean gela bat gehiago behar izatea. Baina hurrengoan bi, eta hurrengoan hiru...”, gaineratu du.

Ikasgela nahikorik ez eta egokitzapenak egiten hasi ziren: Aita Mariko portxean HH2ko ikasgela bat, atezainaren etxea zenean beste bat...

Arazoaren aurrean, lanean hasi ziren Udalarrekin eta Eusko Jaurlaritzarekin.

Hezkuntza Sailaren hasierako erantzuna, ordea, nola edo hala konpontzeko izan zen. “Hainbat eraikin genituela esan ziguten, eta gure artean moldatzeko”.

Proiektu aldaketak

Egoera horren aurrean, gurasoen babesa eta iritzia ezinbestekoa zela adierazi du Agirrezabalagak. Hala, Mahai Iraunkor bat osatu zuten bi zuzendaritzek eta bi guraso elkarteek. Gurasoek ez zuten zalantzarik izan, Del Pilarrek adierazi bezala: “Guraso gisa, ikuspegi global bat eman eta borroka honen alde egin genuen. Zuzendaritzek eta guraso elkarteek Udalarrekin beharrak finkatu eta elkarrekin joan nahi genuen, komunikazioa ez baita oso erraza Hezkuntzarekin. Urteak behar izan dira dena lotzeko, eta proiektuak ere aldatuz joan dira”.

Hasierako proiektua Sagarbideko eraikinari solairu bat gehitzea zen, baina Zumaian haur kopurua etengabe hazten zihoan, eta irtenbide horrek ez zituen beharrak asetzen. “Hezkuntza Sailak uste zuen Zumaiaiko jaiotza tasak behera egingo zuela. Baina urteak pasa eta ez zen halakorik gertatzen. Azkenean, mugara iritsi ginen, eta egoera jasanezina zela aitortu behar izan zuten”, adierazi du Agirrezabalagak.

Hori zela eta, Mahai Iraunkorrek 2023-24rako aurreikuspen bat egin eta arazoaren txosten gordin bat bidali zuen Hezkun-

ELKARRIZKETATUAK

Zuzendaritzako eta Guraso Elkarteetako hainbat kide elkarrizketatu ditugu.





KOKAPENA

Eraikin berria zelai horretan joango da, planoan ikus daitekeen bezala.

tzara. “Data esanguratsu bat zegoen aurreikuspen horretan, 2019-20 ikasturtea; hau da, eskolak gainezka egingo zuen urtea”, azpimarratu du Zubimendik.

Hala, 2014ko otsailean, batzar bat egin zen Hezkuntza Saileko ordezkariekin Zumaian, eta bertan onartu zen egoeraren larritasuna. “Ordutik hona, konpromisoak lotzen hasi ginen. Sagarbiden hirugarren solairua altxatzeko txostena prestatu, eraikin berri bat egitearen aukera aztertu... Biler hartatik atera zen tailerren eraikinean 7-8 ikasgela egiteko proposamena ere, nahiz eta hasierako proiektua 3-4 ikasgela eta jangela egitea zen. 2014rako, baina, ondo koordinatu ginen, gurasoen eta irakasleen laguntzaz. Hortik aurrera hasi ziren premiak finkatzen eta zehazten”, nabarmendu du Del Pilarrek. “Azkenean, Mahai Iraunkor horrek lortu zuen interlokuzio bakarra izatea eta Udalarekin batera joatea Hezkuntzara”, gaineratu du Zubimendik.

Hezkuntzara bideratutako lurzorua

Ikasgela falta gutxi balitz eta horrek ekarritako gela osagarrien galeraz gain, soinketa egiteko gunerik gabe zeuden ikasleak. “Kiroldegiko ordu guztiak hartuta, Sagarbideko gim-





Elena Sasiain: “Sagarbideri solairu bat gehitzea ez zen irtenbidea soinketaren arazoarentzat”

Zumaiako arau subsidiarioek ziotena ipini zen mahai gainean, hau da, eskola ondoko eremua hezkuntzarako zela

nasioa beterik, eta Aita Mariko eraikinean ere gimnasiorik ez. Sagarbideri solairu bat gehitzea, beraz, ez zen irtenbidea soinketaren arazoarentzat”, aipatu du Sasiainek.

2016ko apirilean, Gipuzkoako ikastetxeen arduradun Nekane Agirrerri idatziz bidali zioten eraikin berriaren eskaera; hau da, 13 ikasgela, soinketa gela, aldagelak eta beharrezko zerbitzuak izango zituen. Horretarako lur eremua bazegoela esan zitzaion. Bide beretik, Udalari ere eskutitz bera igorri eta batzar bat egin zen handik egun gutxira. Zumaiako Arau Subsidiarioek ziotena ipini zen mahai gainean, hau da, eskola ondoko eremua hezkuntzarako zela. Egungo Udal Gobernuak *skate park* bat aurreikusten zuen eremu horretan, baina ideia atzera botatzea lortu zuten Herri Eskolako ordezkariak.

Bai bidea batzokia jatetxea

BAI BIDEA jatetxean udazkenarekin batera,
onttoak platerera.

OSTEGUNA: pintxo potea 1,80 €

OSTIRALA: gastropotea, ondo landutako mokadu goxoa 2,50 €



Asteazkenetan, atsedeen eguna.

Eusebio Gurrutxaga plazan 943 86 02 75



Azkenean, Hezkuntzako arkitektoak eman zuen Sagarbiden solairua ez altxatzeko agindua. 2016ko ekainean egin zuten bilera Jaurilaritzak, Udalak eta Herri Eskolako arduradunek. “Lan horrek luze joko zuen, eta ezinezkoa zen umeak bertan zeudela halako obra egitea”, esan du Garikanok. “Sagarbiden solairu bat altxatzeak ez zituen gabeziak konpontzen eta bigarren fasea beharrezkoa zela aipatu zen, hau da, eraikin berria egitea”, esan du Albizuk.

Bestalde, Aitzuri pilotalekua soinketarako erabiltzearen alde agertu zen Udala. “Eskola moduan, baina, geure espazioa nahi genuen. Aldagelak ere beharko genituen...”, jarraitu du Albizuk. “Gure garaian egiten zen soinketa agian egin zitekeen frontoian, baina gaur egun soinketan lantzen diren gaiak bestelako espazio bat eskatzen dute”, azpimarratu du Zubimendik.

Azkenean, iaz jakin zuten eraikin berria egingo dela, baina ez dakite noizko izango den. Hiruzpatalau urte aurreikusten dute. “Prozesu oso luzeak izaten dira eta edozerk luza ditzake. Bi adjudikazio izango dira: proiektua eta obra. Ondoren helegiteak baldin badaude, are luzeagoa izango da prozesua”, esan du Sasiainek.

Eraikin berriak 2.482 metro karratu eta 5 milioi euro inguruko kostua izango du. Guztira, 250 ikasle hartuko ditu. Eraikinak hainbat baliabide eta instalazio izango ditu; besteak beste, 10 ikasgela, bi banaketa gela, bi ikasgela Hezkuntza Premia Bereziatarako, liburutegi-mediateka, teknologia tailerra, zientzia laborategia eta gimnasioa. Azken hori eraikinaren neurrien arabera izango da, ez txikiagoa, ez handiagoa. “Gimnasioa egitea Jaurilaritzaren eskumena da, baina adibidez pista homologatu bat egin nahi izan balitz, eskolaz kanpo ere erabiltzeko, Udalak hartu beharko zukeen parte. Azkenean ez da posible izan, eta, ondorioz, gimnasioa izango da”, kontatu dute.

Komunitatean lan egitearen garrantzia

Obra nagusi horretaz gain, aterpe berri bat egingo da Sagarbideko eremuan, eskolaren eta herriaren beharrak asetzeko eta, bide batez, kiroldegiko leku falta arintzeko. Eskolarentzat, ordea, Sagarbidekoa baino lehenagokoa da Aita Mariko estalpea. “Xumeagoa izango da eta agian herritarrek ez dute hainbeste erabiliko, baina guretzat Haur Hezkuntzako aterpeak du lehentasuna, 2-3 urteko umeek ez dutelako aterperik”, adierazi du Ibarguren. Hala, lan horiek Udalak hartuko ditu bere gain, eta 160.000 euroko kostua izango dute. Obra horiek datorren urtean hastea aurreikusten da.

Kartak mahai gainean daude. Orain, proiektua nola gauzatzen den ikusi behar. “Urte hauetako lanak agerian jarri du Mahai Iraunkorraren garrantzia: komunitate gisa funtzionatu dugu, gurasoen ahotsa entzun da, eta gure babesa eskertu dute

eskolako arduradunek eta gainerako entitateek”, azpimarratu du Zubimendik. “Komunitate hau oso anitza da, eta kontu handiz ibili gara gure eskaerak egiten. Presioa egiten saiatu gara, baina ez da izan presio partidista, baizik eta beharrak bultzatutako presioa. Prozesu honek urteak iraungo ditu, aldaketak izango dira Udalean, Herri Eskolako zuzendaritzetan eta guraso elkarteetan, baina Herri Eskolak bere bideari eutsiko dio”, jarraitu du.

Eskolako zuzendaritzak ere ados daude. “Kontu honek ez luke gelditu behar, bizirik dagoen zerbait da, eta osasuntsu izateko etengabeko mugimenduan egon behar du”, esan du Ibarguren. “Une honetan Udalarekin dugun interlokuzioa ona da, zuzena. Hobetu egin dugu harremana, eta hobetzen ari da. Orain, jarritako epeak bizkortu nahi ditugu. Gu hor egongo gara edozertan laguntzeko”, amaitu du Garikanok. ■

Ilñaki Zubimendi:
«Komunitate gisa funtzionatu dugu, eta gure babesa eskertu dute eskolako arduradunek eta gainerako entitateek»
Antton Garikano:
“Orain, jarritako epeak bizkortu nahi ditugu. Gu hor egongo gara edozertan laguntzeko”



BEDUA ITURGINTZA S.L.

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMALEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700



Amalako plaza, 13 tel. 943 862 385
www.xantialtzariak.com



Erribera kalea, 6 20750 Zumai tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

mara

MÁSMÓV.L



ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

ERTZ INFORMATIKA



Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A

tel. 943 016 353

UZKUDUN taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumai (Gipuzkoa)
Tel.: 943 11 63 97

Galdona



Mendato marmela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

Ganbara

TABERNA

Juan Belmonte, 5

tel. 943 861 057

Garoa

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola

tel.: 943 86 21 61

Txomin Agirre, s/n

20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE

INGLES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 behea
tel. 670 391 777

matrikulazioa dohainik!



Tapaia

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

yoana ileapaindegia

Amaia plaza,
2 behea
943 143 278



Ikastegi homologatua

Golden Gate

Institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
info@goldengateinstitute.com

Imanol **Manterola**
ARGAZKILARIA

“Argazkiak istorio bat kontatu behar du”

TESTUA: GORKA ZABALETA
ARGAZKIAK: IMANOL MANTEROLA

Duela hamar bat urte musika tresnak utzi eta argazki kamerari heldu zion Imanol Manterolak. Urte hauetan 80 bat sari irabazi ditu argazki rally eta lehiaketetan, baina bide hori agortutzat eman du, aldatzeko premia sentitzen duelako.



Artean Olarro Eguneke argazki rallyko lehen saria eskuetan zuela proposatu nion elkarrizketa. “Nik ez zeukaat gauza askorik esateko”, erantzun zidan; “heuk atera beharko dizkidak erantzunak”. Ez dit lan handirik eman; bere argazkiek bezain garbi hitz egiten du Imanol Manterolak (Zumaia, 1972).

Noiz eta nola hasi zinen argazkigintzan?

Hasi nintzen musika laga nuenean. Nire proiektua [Moem] atera nuenean asetuta gelditu nintzen, eta bukatutzat eman musikaren garaia. Ez dakit nola izan zen zehazki, baina bat utzi eta bestearekin hasi, hala izan zen.

Baina zergatik argazkigintza eta ez beste diziplina bat?

Beti eduki izan dut argazkilari begia; kamerarik ez neukanean begiekin egiten nituen argazkiak. Egoera edo txoko bereziren baten aurrean, beti ikusten nituen argazkiak. Baneukan konpaktu txiki bat, eta hura izorratu zitzaidanean zuzenean kamera on bat erosita hasi nintzen serio. Garbi nuen argazki arruntak baino zerbait gehiago nahi nuela, eta horretarako ekipo ona behar da. Ikusten nituen Peio Romateten argazkiak eta Luis Llaborirenak eta horrek piztu zidan gogoia. Nire erreferenteak hemengo argazkilariak dira, ez dut interes berezirik izan historiako argazkilari handiak aztertzeke.

Kamera ona erostea ez da nahikoa argazki onak ateratzeko...

Ez da nahikoa, ez... Hasieran gaizki, oso gaizki... Konpaktuekin argazki txukunak ateratzen dizkizu, gauza handirik

jakin gabe. Kamerak berak konpentsatzen dizkizu argia eta beste parametro asko, eta zuk enkoardatu besterik ez duzu egin behar. Reflex bat lehen aldiz hartzen duzunean, sekulako desengainua hartzen duzu. Eta konturatzen zara teknika ikasi behar dela argazkigintzan zerbait egin nahi baduzu.

Eta zuk nola ikasi zenuen?

Ikastaro bat edo beste egin nuen, baina neure kasa ikasi dut gehiena. Zorionez, gaur egun Internet daukagu eta hor dena dago. Ordu asko pasa ditut tutorialak ikusten; ez hainbeste argazkiak ikusten. Hasieran bai, ikusten nituen argazkiak, baina segituan konturatu nintzen horrela beste egileen argazkiak errepikatzen dituzula. Musikatik nator, eta berdin gertatzen da. Musika asko entzuten baduzu, zaila da zure estilo pertsonala garatzea. Argazkiekin berdina gertatzen da.

Aztera begiratu eta lehen argazki haiek ikustean, zer pentsatzen duzu?

Argazkiak egiten hasi nintzen Zumaian denok egiten dugun bezala: Itzurunera joan eta betiko argazki horiek ateratzen. Baina horrek bide oso motza dauka. Gero hasi nintzen esperimentatzen eta gauza berriak ikasten. Hamar bat urte daramatzat argazkiak egiten eta oraindik izugarri gelditzen zait ikasteko. Oraindik ez naiz inora iritsi, oraindik ez dut nortasun propio hori aurkitu, neure buruarekin borrokan nabil. Estilo propioa, leku propioa, oraindik definitu gabe daukat.

ZATOZ ITSASOAREKIN GOZATZERA!



Webgunea: talasoterapiazelai.com
Tel. 943 865100
Talasorearen ordutegia: Egutero irekita 9:30etik 20:30era
Jatetxea eguerdian irekita, eguerdia eta gauean.

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A



◀ Eduki nuen lehengo kamera digitalarekin dago aterata argazki hau; Sony txiki bat zen, baina manulean erabiltzeko aukera eskaintzen zuen, eta harekin hasi nintzen teknika pixka bat ikasten. Horrez gain, argazki hau amonaren etxea zenetik dago aterata, eta niretzat balio sinboliko handia du.

Baina izango duzu gai eta argazki motaren bat gustukoago?

Naturako argazkiak dira gehien gustatzen zaizkidanak. Naturan gozatzen dut gehien, han eta hemen ibiltzea, eta horri gehitu diot naturari argazkiak egitea. Gure inguruneak aukera asko ematen ditu, gainera: kosta, itsasoa, basoak, mendiak... Hori da nire terrenoa, baina nire nortasuna ez dut aurkitu; eta bali-teke sekula ez aurkitzea, denetarik probatzea gustatzen zait eta. Makro-argazkiak ere gustatzen zaizkit. Baina, pasa dezaket bo-lada bat landareei ateratzen, gero intsektuei... Orain hegaztiak erakartzen naute. Baina gai batean zentratzea ez da erraza. He-gaztiak, adibidez, gero eta gutxiago daude; tximeletak ere berdin, oso zaila da aurkitzea. Espezie asko galzorian daude eta naturako argazki hauek badute dokumentazio balioa ere. Tximeleta baten argazkia lortzen dudanean pentsatzen dut agian Zumaian beste inork ez duela lortu tximeleta mota horren argazkirik. Argazkiari garrantzia hori ematen saiatzen naiz. Ez soilik ikuspegi estetiko.

Zer da zuretzat argazki on bat?

Argazki bat ateratzen dudanean beti konposizioari begiratzen diot, horretan oinarritzen naiz. Argazkietan elementuak bere lekuan jarri behar dira, zentzu bat eman behar zaio guztiari, argazkiaren barruan ibilbide moduko bat proposatu behar da. Argazki onenak dira zure arreta bereganatzen dutenak, zure begirada ohi baino denbora gehiago erakartzen dutenak. Argazki horiek informazio asko ematen dute, istorio bat kontatzen dute, eta hori da helburua. Hori da argazki on bat. Esaten didatenean “zer argazki polita”, horrek ez nau asetzen.

Argazki rally eta lehiaketetan buru-belarri aritu zara urte hauetan. Zergatik?

Ni oso lehiakorra naiz, baina plaieroetako kopa kenduta, sekula ez nuen ezer irabazi. Argazkigintzan hasi nintzenean, Espainian oso ezaguna den webgune bateko lehiaketa batera aurkeztu nuen argazki bat, ezer lortzeko inolako esperantzarik gabe. Eta sorpresa sekulakoa izan zen, lehen saria irabazi nuen. 2009an izan zen. Urte berean, *Berria* egunkariak antolatutako udako lehiaketa irabazi nuen. Ikusten duzunean sariak irabazten dituzula, horrek harrapatu egiten zaitu. Gero hasi nintzen rallyetan parte hartzen eta urtero irabazten nituen sariak. 2009tik 80 bat sari irabazi ditut. Eta denoi gus-tatzen zaigu irabaztea.

Eta horrekin batera, ikasteko modu oso ona da. Sekula aterako ez zenituzkeen argazkiak egitera behartu behar duzu zure burua, eta horrela ikaragarri ikasten da. Entrenamendu bat da, eta akatsak eginez ikasten duzu. Kale egiten duzu-nean, hurrengo rallyan daukazu zuzentzeko aukera. Dutarik gabe, rallyetan ikasi dut argazkiak egiten. Sormena lantzen duzu eta zeure burua harritzera ere irits zaitezke.

Kameran klik egin aurretik asko pentsatzen duzu zer argazki nahi duzun?

Niri gehien gustatzen zaidana da zerbait deskubritzea. Leku batera joan, ibiltzen hasi, eta erakartzen nauten gauzak to-patzea. Argazki kamerarekin ehizatzea. Batzuetan esku hutsik bueltatzen zara, besteetan argazki bat edo birekin... Goizak



▲ Argazki hau nire bigarren kamerarekin dago aterata. Ez dakit zer daukan, baina oroitzapen asko-asko ekartzen dizkit, hasierako garai haiek eta, ziur aski, Zumaiaiko betiko paisaietatik ihes egiten hasi nintzelako edo.

eta goizak pasa ditzakezu argazki bakar bat egin gabe. Nik normalean hartzen dut kotxea eta norabide zehatzik gabe abiatzen naiz. Mendira joaten naiz, hartzen dut bidezidorren bat eta ea zer gertatzen den. Hemen inguruko txoko guztiak ezagutzen ditut...

Zuk asko lantzen dituzu argazkiak post-produkzioan. Badago eztabaida bat horren inguruan, mugak non ote dauden, Photoshoparekin astakeria handiak egin direlako. Zuk nola ikusten duzu kontu hau?

Nik argazkiak asko lantzen dut, bai. Bakoitzak bere argazkiekin egin dezake nahi duena. Beste kontu bat da iruzur egitea. Hortik aurrera, bakoitzak egin dezala nahi duena. Nik ez daukat inolako konplexurik moztu behar dena mozteko, kolorea aldatzeko edo objektuak handitzeko horrek argazkia hobetzen badu. Zaindu behar dena da azken emaitza ez desitxuratzea, errealismoa mantentzea. Baina aldaketa horiekin irudiak irabaziko badu, nik egin egingo dut. Zuri-beltza da horren adibide nabarmena. Gaur egungo argazkigintzan funtsezkoa da edizio digitala. Aldizkarietan edo Interneten ez duzu argazki bat bera ere ikusiko postprodukzioan ukituren bat izan ez duenik. Garbizaleek ere beren burua engainatu baino ez dute egiten, kamerak berak egiten dituelako automatikoki lehen eraldaketak. Kamera prozesadore bat da, azken finean.

Eta Internetekin nolako harremana daukazu? Zure argazkiren bat ikusten duzunean espero ez zenuen orri batean...

Oso gaizki daramat kontu hori, baina azkenean ikasi eginen duzu. Badakizu argazkiak facebookera igotzen badituzu mundu guztiaren esku jartzen dituzula. Amorrurik gehien ematen didana da norbaitek argazkia hartzea, edozein modutara moztea eta argazkia desitxuratzea. Errespetu falta horrek ematen dit min. Bestela, ez dut gehiegi pentsatzeko. Argazkiak igotzen ditut jendeak ikusteko eta gero modu batera edo bestera erabiltzen badira, zer egingo diogu. Azken finean, argazki bat baino ez da, eta ni argazkilari bat gehiago naiz.

► Bardeetan erabat galdurik nengoela aurkitu nuen leku bat da; kostako zait berriro aurkitzea, ez baitakit zehazki non dagoen. Sekulako sorpresa hartu nuen topatu nuenean, eta, orduz geroztik, gehien gustatzen zaidana da hor zehar galtzea, leku ezezagunak deskubritzea.





◀ Argazki honekin lehenengo saria irabazi nuen webgune ospetsu batean; sekulako sorpresa izan zen niretzat. Arrakasta txiki hari esker, pixkanaka lehiaketa gehiagotara aurkeztera ausartu nintzen, eta gaur egun 80 sari inguru ditut irabaziak.

► Intsektuek eta hegaztiek harrapatuta naukate. Ez da soilik argazkia atera eta kitto; aurrelan handia egin behar da beraien ingurune naturalean harrapatzeko. Gainera, beraiegandik asko ikasten dut.



Gure-Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiak
Tel.: 943 86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran ingaterrara ingelesa praktikatzera
www.academiarharvest.com

San Jose, 11 bis. tel. 943 143 334

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

Iriondo optika



Kantauri plaza, 8. Zumaiak. tel.: 943 86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943 85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orofarako solnu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa
tel. 943 63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ



Ileapaindegia Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIK (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

TXALAPARTA
OPARIK



Angelos Soraru, 2
20750 ZUMAIK (Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
fax: 943 430 637

Talaira
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

ORRAZTEGI
ZUMAIK



943 862 083

JUARISTI
jatetxea


Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Baseldi auzategia, 10 tel. 943 05 05 77


JUSTA
taberna

Erribera kalea, 20 www.justataberna.com
tel. 943 861 405 justa@justataberna.com

K&BI Paketa Eteazurreta, 18
943 117 427



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak
Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

DOIA



Julio Beobide, 2
943 574 986

kuttun
lentzeria



erribera kalea tel. 943117936

Kameraz gain, aparatu eta osagarri asko erabiltzen dituen horietakoa al zara?

Bai, gehiegi, egia esan. Damutzen naiz hasieratik material ona erosi ez izanaz. Hala egin izan banu, diru asko aurreratuko nuen. Osagarri asko behar badituzu, hain ona ez zaren seinale. Normalean argazkilaria ona gai da kamera eta objektibo batekin argazkiak egiteko. Nik bekatu hori badaukat, baliabide asko nahi izaten ditut eskura. Onartzeko arazorik ez daukat.

Argazkigintzako generoen artean bada bat gaitasun berezia eskatzen duena: erretratua. Saiatu al zara esparru horretan?

Egin izan ditut gauza batzuk, baina zailena da, dudarik gabe. Niri gustatzen zaizkit erretratu naturalak, behartu gabekoak. Estudiokoak, ezkontzetakoak, oso zailak iruditzen zaizkit. Pentsa daitekeena baino gaitasun handiagoa izan behar da erretratuak egiteko. Pertsonen bitartez askoz gauza gehiago kontatu daitezke, baina, era berean, zailagoa da. Niri gustatzen zait argazkiak "lapurtzea"; kamerari begira baino, jendea jarrera naturalean harrapatzea.

Mendiko irteera horiek egiten ditudanean, askotan gertatu izan zait bertako baserritarrekin topo egitea. Askotan berri-

ketan hasten gara eta gero gustatzen zait argazkiren bat egitea. Pentsatzen dut paraje eta baserri horietan biziko diren azkenak izan daitezkeela, eta argazki batean jasotzeko premia sentitzen dut. Baina erretratuak ez dira nire eremua.

Zure estiloaren bila zabiltzala esan duzu. Aurrera begira, zer asmo dauzkazu?

Momentuz, rallyak uztea erabaki dut. Bide hori agortu dudala sentitzen dut eta aldaketa bat behartzeko modua da. Jarrai nezakeen rallyetan sariak irabazten, baina ez dut nahi hortik jarraitu. Urte asko egiten dituzuenean rallyen zirkuituan txinparta galtzen da, lekuak, gaiak eta lehiakideak ere oso ezagun egiten zaizkizu, argazkiak egiteko modu jakin batera eramaten zaitu, rallyen estilora. Muga horiek gainditzeko zerbait ezberdina egin behar da. Gutxienez, atsedean hartu behar da. Datorren urterako badaukat buruan proiektu bat, baina oraindik ezin dut ezer aurreratu. Dena den, oraindik gai edo kontzeptu baten bila nabil. Zer egin nahi dudan baino garbiago daukat zer ez dudan nahi. Ez dut ilunabarren argazkirik nahi... Aldatzeko premia daukat baina ez dakit norantz joan. Baina ez pentsa argazkigintzan aukera asko dagoenik zure lana ezagutzera emateko: lehiaketa eta rallyen mundua, edo bestela erakusketen bidea hartzea. ■

▼ Azken argazki hau duela egun gutxi dago aterata. Aizarna da argazkiko herria. Horrelako irudiek indarra ematen didate argazkiak egiten jarraitzeko,

baita jakiteak etxetik gertu oraindik ere sekulako lekuak dauzkadala deskubritzeko.



Jendez gainezka zegoen taberna, baina, aldi berean, une jakin hartan esan daiteke bost lagun besterik ez zeudela: hiru musika jotzen eta bi elkarri helduta dantzan, modu intimoenean, hiru hamarkadako historia bati amaiera emango zion azken balsean.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA ETA PEIO ROMATET

Joserraren eta Maripiren azken balsa

Maripi Azkuek eta Joserra Gorritik 1986ko abenduaren 31n zabaldu zuten Itzurrun taberna. Beraz, hilabete eskas baten-gatik ez dira heldu tabernaren 31. urteurrena bizitzera. Azaroaren 29ko ordu txikitari itxi zuten azken aldiz tabernako atea. Hurrengo egunean ez zegoen zertan goiz jaiki berriro zabaltzeko.

Eta nola ematen zaio agurra taberna baten aro luze honi? Hileta batekin edo festa giroan? Maripik eta Joserrak bigarren aukeraren aldeko apustua egin zuten eta taberna honetatik pasa garen lagunok gonbidatu gintuzten festan parte hartzera. Azken urteotan bertan jo duten zenbait taldek ere ez zuten hutsik egin eta AGE, Serious Business eta Marlik taldeen kontzertuak izan ziren. Jam session baten ondoren, amaitzeko, aipatutako azken dantza izan zen.

Behin kontzertuak amaituta eta garagardo bana eskuetan, AGEko gitarra jotzaile eta abeslari Joseba Aizpurua eta biok hizketan jarri ginen. The Band taldearen *The Last Waltz*, azken balsa ekarri zuen gogora, haren paralelismo bat eginaz. The Band rockaren historiako talde garrantzitsuenetakoa bat izan da, nahiz eta musikazale porrokatuen girotik kanpo sona handirik ez duen. 1976ko azaroaren 25ean (ia 41 urte lehenago) agurreko kontzertua eman zuen, agurra bai taldeari, baita aro bati ere, eta han izan ziren Dylan, Van Morrison, Neil Young edota Joni Mitchell bezalako izarrak, *The Last Waltz* izango zenean. Josebak esanda, bere eskalan, azken balsa izan zen Itzurrunen bizitakoa.

Hiru hamarkada hauen kontakizuna egiteko eskatu diegu Joserrari eta Maripiri. Giltzak jabe berriari eman aurretik, ta-

berna bertan jarri dugu hitzordua, pertsianak botata, ateak itxita eta hozkailuan geratu ziren zerbeza apurrak mahai gainean ditugula.

Nola bizi izan zenuten azken larunbat hori?

Joserra: Niretzat guztia izan zen hunkigarria. Bezeroek pena sentitzen zutela esan zidaten, baina baita inbidia ere. Hiru mutilak igo zirenean eta kanta horren lehen notak jo zituztenean, bah, Maripikin dantza egin beharra sentitu nuen, nahiz eta jakin ez zitzaiola gustatuko.

Maripi: Ez zait gustatzen agerian jartzea.

J: Berdin zait, zatoz ona! Oso hunkigarria izan zen, jakinda, gainera, azken eguna zela.

M: Inor etorriko ez zen beldurra nuen. Jendea gonbidatu eta agian lau etorriko ziren. A zer lotsa! Baina esan behar dut ez nuela jendetza hori espero eta pentsatzen dut, agian, ez genuela merezi. Azken finean, gure bizimodua izan da. Sorpresa handia hartu nuen eta ez nuen pentsatzen jendeak halako maitasuna erakutsiko zigutenik.

Debaldeko edana izan zen eta horrek jende asko erakarriko zuen, baina, bai, jende pila bat izan zen.

M: Pentsatzen dut etorri zen lagun kopuru handi hori ez zela etorri edana doan zelako. Gainera, ez dakit nondik jakin zen doakoa zela, ez genuen eta inon iragarri. Agian, errazagoa izango zen beraientzat beste leku lasaiago batean egotea, baina hona etortzeko esfortzua egin zuten.

J: Festara etortzeko eskatu nizun. Hau ez zen inaugurazio bat, agurra zen eta nik zu etortzea nahi nuen. Beste kontzeptu bat zen. Inaugurazio batean ez dakit zein etorriko den eta gero hona gehiagotan etorriko den. Baina orain banekien zein nahi nuen etortzea.

Ikusita zer nolako erantzuna izan zenuten, damutu al zarete ixteaz?

J: Hemen gauza asko batzen dira. Pena ematen dizu, bai, baina kontziante zara bizi duzun egoeraz. Hemen lanean nago eta ondo, baina hemendik urte batzuetara nola egongo naiz? Belauneko mina duzu, oin azpikoa, bizkarrekoa, ikusmena gero eta okerrago duzu... Gure semeak hazi ditugu dagoeneko. Zeren zain egon behar dugu? Pena ematen didala? Bada, bai. Baina, aldi berean, ate handitik joatearen poza daukat.

M: Damutu ez, baina agian nik beste urte batzuk jarraituko nuen. Baina ez naiz inor nire senarra, bikotekidea edo dena delakoa hemen egotera behartzeko nik hala nahi dudalako. Zalantzarik ez dut; beldurra, agian, bai. Beldurra semeen etorkizunagatik, bizi dugun egoera ekonomikoagatik, soldat tak jaitsi direlako. Agian egun batean esango dute ondo etorriko litzaiekeela taberna izatea.

Semeek ez al zuten tabernarekin jarraitu nahi?

M: Momentuan ez zuten nahi. Eta zer? Beste hamar urtean egon behar al ginen beraien zain? Hori ezinezkoa zen.

J: Ikasketak bukatu dituzte. Hori zen beste kontua. Zikloa bukatu dugu. Babarrun platera eta ohe bat beti izango duzue

IA 31 URTE
ITZURUN
TABERNA
ERAMATEN

*Hilabete bakarragatik ez
dute tabernaren
31. urteurrena bizi*



AZAROAK 25 EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroak 7: MUXUA antzezlan, Aita Marin
Azaroak 14: VOLAR dokumentala, Oxford aretoan
Azaroak 22, 23 eta 24: Berdintasunerako gunea, Eusebio Gurrutxaga plazan. Goizez, tailerrak ikastetxeekin eta Soldadura eskolarekin. Arratsalde, hitzaldiak.
Azaroak 24: FRIDA antzezlan, Aita Marin



* TRATU ONEKIN DANTZAN lelopean: Orio, Getaria, Aia, Zarautz eta Zumaiako ikastetxe eta Udalak elkarlanean.

Azaroan



Zumaia txartela erabiltzaile
agian erosketak doan
aterako zaizkizu



Zumaiako Udala

etxean, baina bizimodua zuek aurkitu beharko duzue. Lagunduko zaituztet, erortzen bazarete altxatzen lagunduko zaituztet, baina zuen bizimodua aurkitu beharko duzue.

M: Zorionez, 15-16 urte zituztenetik hori irakatsi diegu. Bateria bat nahi duzula? Nik bateriarik ez dut, baina lana bai. Lana egin eta zuk erosi zure diruarekin. Horrela ikasi dute. Badakite zer den lan hau eta badakite zer ez duten nahi. Erabaki dute.

J: Etxean ikusi dute zer den hau. Lana duzula eta joan egin behar. Komunio bat, urtebetetze bat, ospakizun bat izan eta neka-neka eginda jaiki egin behar. Zenbat Gabonetan gorroto izan ditut nik Errege Eguna! Bezperan goizaldeko 5etan heldu etxera eta goizeko 9tan festa egin behar. A zer korajea izaten nuen! Ez nintzen batere ondo sentitzen. Gero, gainera, goizeko 11:00etan berriro taberna zabaldu behar izaten zen. Azken urteotan Arnaitz izan dut tabernan eta askoz errazagoa izan da. Berak gauak egin dizkit. Dituen akats eta bertute guztiekin, baina bai, bizitza aldatu dit Arnaitzek.

Hau amaiera izan zen, baina nolakoa izan zen hasiera? Maripi, zu ostalaritzarekin lotura duen familia batetik zatoz.

M: Bai, nik 8 urte nituela zabaldu zuen amak Azkue taberna. Ordutik tabernan bizi izan ginen. Langileentzako bazkariak ematen ziren eta ordutik baldintzatuta egon dira nire ikasketako egunak eta asteburuak. Nik administraritzaz ikasi nuen, baina pentsatuta beti amarengana joango nintzela laguntzera. Gero, mutila ezagutu nuen eta gaztedanik berekin ezkondu nahi izan nuen, eta ez zitzaidan inporta tabernan egotea.

J: 19 urte nituen arte tornero ibili nintzen Altzolan. Hiru urte egin nituen han langabezia geratu nintzen arte. Soldaduska aurreratu nuen eta han kantinan hasi nintzen lanean. Horrekin batera, Madrilgo diskoteka batean, Morata de Tajuñan, lan egitea eskaini ziguten. Han hasi nintzen pixka bat ikasten. Gero, bueltan, Cruz (Ugartemendia) soldaduskara zihoala eta, Idoian hasi nintzen lanean. Han urte eta gutxi egin nuen. Gero Donostiara joan nintzen eta han beste urte eta piko egingo nituen, Alde Zaharreko Loretxun. Han Txukun taberna dago, Fermin Calbeton kalean. Jabea aldatzera zihoan eta hartzea pentsatu nuen. Honen amari, Doloresi, esan nion taberna bat zegoela Donostian, funtzionatzeko aukerak zituela, eta ea nirekin atrebituko zen. Berak jarri behar zuen dirua. Bi atera esan zidan Azkue tabernatik hurre Sanga izeneko taberna zegoela salgai, orain Estutxo dena, berak erosiko zuela eta nik eramatea proposatu zidan. Han hasi nintzen. Kaia taberna saltzekotan ziren garai hartan eta interesatu ginen, baina azkenean ez zen posible izan. Gero hau ere salgai zegoela ikusi genuen eta hemen hasi ginen. Baina onartu behar dut nire lehen asmoa ez zela ostalaritzan murgiltzea. Kostatu zitzaidan onartzea. Lehen semea izan genuenean hartu nuen ostalaritza serio.

Gazteak ginenean eta tabernaz taberna ibiltzen ginenean, hau, beti, guretzat, zaharren kafetegi bat zen.

J: Ez dugu guk zaharren kafetegia zen horrekin sufritu! Nik,



behintzat, bai. Orain erraz eramaten da, taberna guztiek dituzten miseriekin. Baina... Esango dut? Negarrez itzuli nintzen etxera urtarilaren 7 hartan genituen zorrak ikusita. Jaieguna ez zen lehen eguna zen. Gabonetako egun guztietan lana egin genuen eta haiek amaituta errealitate gordinarekin egin genuen topo, genituen zorrak eta kajan zenbat diru genuen ikusita. Oso zaila izaten da halako ideia bati buelta ematea. Uste dugu orain une on batean dagoela eta hori izan da saltzeko arrazoietako bat. Orain 18 urtetik 81 urtera bitarteko bezeroak genituen.

Gauza asko ikusiko zenuten barraren bestaldetik. Jon Fernandezek kontzertuan esan zuen bezala, eguerdian pertsonak gara, baina gauetz animaliak.

J: Ikusitako sekretu batzuk irentsi egiten dituzu. Bikote kontuak, adibidez. Hemen pare bat strip-tease ere izan ditugu. Bat dagoeneko hilda dagoen batek egin zuen. Modistillen gau bat zen, 30 bat lagun egongo ginen hemen, gehienak emakumeak. Musika jartzeko eskatu zidan, nik Grover Washington, jr.-en saxo musika jarri nion eta han hasi zen dantzan eta arropa kentzen. Biluzik geratu zen eta ez zuen ezer erakutsi!

M: Guraso batzuk esan izan digute badakitela beraien alaba gure tabernara etortzen zela eta horregatik seguru sentitzen zirela.

J: Bazekiten saltoka, mozkorkeria edo porro bat erretzen ikusiko bagenitu Joserra zaharra aterako zela eta frenoja jarriko ziola. Dirua ateratzea ondo dago, baina zeren kontura? Taberna ere aldatu izan da. Ez gara joan mozkortu nahi duen gazteriarren bila. Eguneako gauza desberdinen bila joan gara. Eta horren lema, hemen, jabeak eramán du [Maripigatik]. Sukaldean sartu da eta derrepente sukalde horrek jauzi bat eman du, pintxoetan, kalitatean, itxuran...

M: Baina ez aurretik ez zelako lanik egin. Guk ere ez genion garrantzirik eman.

J: Horrek ez du inporta. Gauza da egin zela. Joan izan gara biok Valladolidera eta argazkiak atera dizkiogu barrari, arbelari, eta hori ere bada lana. Hortik zer aterako zen? Bada, agian, pintxo bakarra, baina pintxo bat zen. Hura zen berrikuntza guretzat eta aurretik zenituen beste lauzpabosti ge-



hitu zitzaion. Esango dizute zer nolako mostradorea duzun. Hori nondik dator? Bada, hemen, jabea sukaldean egon delako lanean, ez ordu bakarrean, baizik eta egun osoa sukaldean sartuta. Zentzu horretan presioa ere sentitzen duzu.

Barraren bestaldetik herria aldatzen ere ikusiko zenuten. Nola aldatu da?

M: Gaueko lana egitetik egunekora pasa gara eta. Orain 31 urte taberna zabaldu genuenean jende heldua, behin umeak hazita, kalera ateratzen zen gauetan. Gogoan dut, garai hartan, goizeko ordu bietan taberna hau bakarrik ez, baita Idoia eta besteak ere, jendez gainezka egoten zirela. Hori aldatzen joan da. Gau giroa asko jaitsi da eta orain egunez egiten da lan. Zumaiera etorritako jende kopurua ere handitu da. Hasteko, flyscharekin, 8 *apellidos vascos* pelikularekin baino

lehen. Fitur eta halako turismo azokek garrantzia izan dute horretan. Erakusleihu batean jarri dute Zumaia.

J: Gu errepidearen ondoan gaude. 5.000 pertsona etortzen badira, 4.900 hemendik pasatzen dira. 100 sartzen direla? Ederki. Bi geratzen direla? Ederki, baita ere. Herria asko aldatu da. Oraindik badago jendea oso itxia dena. Beren kuadrilla dutena eta kito. Baina orain askoz irekiagoa da herria. Hori maila guztietan igarri da. Lehen aldiz etorri nintzenean askoz itxiagoa zen. Zein da hau? Nongoa da beste hau? Aldaketa hau lehen pertsonan bizi izan dut, barraren bestaldetik.

Kontzertuak izan dira taberna honetako beste ezaugarrietako bat. Joserra, hitz egin dugunean esan izan didazu zuretzat gozamena zela, baina baita kalbarioa ere.

J: Azkenaldian angustia sortzen zidan. Gertatu izan denaren



*Ezkontzak, Batailoak, Jaunartzeak
Lore-zentruak, Koroak
Landare naturalak eta artifizialak
Zermika-lanak eta zumezko saskiak*

Etxez etxeko zerbitzua!
Santiago auzoa, 18
Tel. 943 862 611



Urriaren 28an egin zen Itzurun tabernaren aro baten amaierako festa. Bezeroek eta lagunek ez zuten hutsik egin eta musika saioez gozatzeko aukera izan zuten.

arduradun sentitzen zara. Onerako eta txarrerako. Onerako bada, ez diozu garrantzirik ematen. Txarrerako bada, zu sentitzen zara arduraduna. Ez da inor etorri, zer gertatu da? Kristoren musikoak izan ditugu hemen eta askotan oharkabe pasa dira. Gehienek esan izan didate hemen ondo sentitu zirela. Baina ni nekatzen hasita nengoen. Azken Gabonetan desengainatu egin nintzen. Hiru asteburutan kontzertuak jarri nituen eta erantzuna ikusita popatik hartzera bidaltzeko gogoia izan nuen. Aurten hitzartuta nituen kontzertuak antolatu ditut, baita Zumaiaiko jendearena ere. Niri Aitor Badiola edo AGE etorri bazaizkit, antolatu diet. Nire semeek eskatu badidate, izan dute. Baina herrikoak bakarrik. Kanpokoia eta sekulako musikaria zela? Berdin zitzaidan, aspertu egin nintzen. Banekien Zumaiakoa izanda lagunak eta familiarte-koak, behintzat, etorriko zirela. Orain datorren nagusiak ere badu kontzertuak antolatzeke asmoa.

Blues eta jazzari zuzendutako kontzertuak izan dira. Ez zarete saiatu, agian, jende gehiago erakarriko luketen taldeak ekartzen?

J: Oso zaila da jendea mugitzea. Agian gustatuko zaie musika estilo hori, baina beste plan batzuk izaten dituzte. Beti daude aitzakiak. Horren atzean babesten nintzen haserretzen nintzenean. Edo agian ez nintzen gauza izan gauzak ondo egiteko. Azkenean, leher ginda amaitu nuen.

Gero, liburuak kontua dago. Etxean pilatuta nituen eta behin esan nuen, kito!, hau bukatu da! Tabernara ekarri nituen eta partekatze sistema jarri nuen martxan.

M: Tabernagatik izango ez balitz, nik hau liburu-denda batean ikusiko nuke, liburuekin, kafe makina batekin eta ardoarekin.

J: Eta banku batean bezala, txirrinarekin. Nor dator? Alde egin ezazu molestatzen ari zara eta! Hori gustatuko litzaidake. Nik jende askori gomendatzen dizkiot liburuak. Eta jendeak egindako gomendioei ere kasu egiten diot. Norbaitek liburu bat gomendatzen badit, zalantzarik gabe salto egiten dut.

31 urte egon zarete taberna honetan. Bezero bezala sartuko al zarete?

J: Nik ez dut inongo kritikarik egingo. Bezero bezala sartuko naizen? Bai, zer, gainera, gustatzen zaidan taberna da hau. Egiten duena ez bazait batere gustatzen, bada, ez naiz joango eta kito. Baina, bestela, bai. Tristura emango dizula? Bai, noski. Eta egun batean sukaldeko atetik sartuko naizela? Bada, agian!

M: Seme batek esan zidan arraroa egingo zaiola pintxo bat hartu eta ez ordaintzea! Pentsatzen dut etorriko naizela, baina neure burua ikusi behar dut oraindik. Pertsona heldua naiz eta etorriko naiz. Baina barrenak nola izango ditudan, hori geroago esango dizut. ■

LABARRA TABERNA ZUMAIA est.2016

Ondartxo plaza 5, Tel. 943 860 484



MENDI - ONDO S.L. Elektrizitatea

Urola plaza, 21 Tel. 943 860 074 - 943 861 569
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com



BALEIKE.eus

Deskargatu doan app-a



CROISSANTERIA

pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea Tel. 943 861 691

Nikol taberna

Amnaiko plaza 343561816



NOIA S.L. TAILERRAK ETA KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indutrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

836 887 812 (Zumala)
809 834 438 (Itziar-Deba)

www.carroceriasnoia.com



Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioako kalea, 12 Tel. 943 861 412 - 686 364 149



construcciones y reformas, S.L.
647 040 156
686 911 257
oliden@olidenreformas.com

ZARAUZ - ZUMAIA

www.olidenreformas.com

Fotakolak
Telatutak
Etxebizitzak
(Sukaleak, bainuziak)
Industria mantenimendua
Mota guztietako igelberotza lanak

Etxebizitzaren inspezio teknikoa (ITE)
Zertifikatu energetikoa
Fotobaten diseinua eta aholkularitza
Etxebizitzaren barne diseinua
Mota guztietako proiektuak



Alai Auzategia, 14 • Arranaltz, 1 Tel. 943 143 112
oskarkiroiak@euskalnet.net



OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortu Industriegunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 88 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com - e-mail: ostola@ostolaza.com

Ostolaza altzariak

Tel/Fax: 943 86 13 25
Julio Beotxe Ibitokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



943 247 011
www.laprimaverapizzeria.com

TXIMISTA garagardotegia

Ogitortekak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (Kodilloak)
Saltxitzak, oillaskak...
Garagardak aukeran

Ondartxo plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943 865 289



PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

MUXARRAREN HEZURRA ABESTI BIHURTUTA

MUSIKA

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Sargo laukoteak lehen diskoa atera zuen pasa den udaran. Taldearen izen bereko diskoa da eta punka eta rock gogorraren bueltan mugitzen diren zazpi kantik osatzen dute. Gaur egun bizi dugun egoeraren ikuspuntu beltza jasotzen dute abesti hauetan.



Muxar baten arrain hezurra ageri da zuri-beltzezeko azalean, eta, barruan, hezur horiek bezain zorrotzak diren gitarren eztanda. Taldekideek diotenez, muxarra (sargo gaztelaniaz) arrain ausarta da, adoretua. “Iker eta biok arrantzaleak gara eta muxarra arrain kementsua da. Pentsatu genuen Sargok bazuela indarra izen bezala”, dio Hectorrek. “Sobietar izen bat ere gogorazten dit. Laburra, zuzena eta ahoskatzeko erraza da”, gaineratu du Ikerrek. Taldeak Uxategian The Grace of Dionysusekin partekatzen duen lokalean geratu gara diskoaz eta taldeaz hitz egiteko. Gau iluna da kanpoan. Beraien eginbeharrek uzten dieten denbora librean elkartzten dira entseatzeko.

Barricada talde nafarrak elkartu zituena Sargo taldea osatzen duten lau kideak: Iker (gitarra), Hector (gitarra), Juanjo (baxua) eta Jesus (bateria). 2013ko San Telmo jaietan egin zen bertsio gauerako elkartu ziren. “Hasieran, gau bakarrerako izan behar zuen, baina gero Estazioko jaietan jotzeko deitu ziguten, eta gero Alaiko jaietarako ere bai. Ez genuen Barricadarekin sailkatu nahi, eta beste talde batzuen kantak entseatzeko hasi ginen: Reincidentes, La Polla, Extremoduro, Ramones, The Clash..., bizitza osoan entzun ditugun taldeak. Geroago hasi ginen kanta propioak egiten, bestela berbenako talde bihurtzeko arriskua duzu eta”, dio Ikerrek.

Deriva taldetik datoz gaur egun Sargo osatzen duten lau kideetatik hiru: Hector, Jesus eta Juanjo. “Deriva gogo handiarekin hasi genuen, baina pixkanaka beheraka joan ginen, eta azkenean uzteko erabakia hartu genuen”, gogoan du Jesus. “Iker hemendik zebilen eta bertsio gauerako elkartu ginen. Nik Derivan bateria jotzen nuen, baina Sargon baxua jotzen eta abesten hasi nintzen. Nire anaia Ruben zen bateria jotzailea, baina lanagatik utzi egin behar izan zuen. Tartean Alex (Milavinovic) ere izan genuen, baina azkenean berriro bateriara itzuli nintzen eta Derivan baxua jotzen zuen Juanjo elkartu zitzaigun. Hura ere zerbait egiteko gogoarekin zegoen”, gaineratu du.

Laukotea egonkortuta, estudioan sartu ziren diskoa grabatzeko. “The Uski’s taldeko kideek Ibarrangelun duten estudioan grabatu dugu. Hiru asteburutan grabatu dugu, ostiraletan joan eta larunbat goizaldera bueltatuta”, azaldu du Ikerrek. Teknikarien lana ere txalotu du. “Taldea asko ari dira grabatzen han, eta gustu ona dute. Xehetasun guztiak zaintzen dituzte. Rockaren ikuspuntu berezia dute. Esango



“Denbora luze daramagu musikan, eta ilusioa genuen diskoa formatu fisikoan ateratzeko”

nuke diskoan lortu dugun soinu garrantzi handia dutela; taldeko bosgarren eta seigarren kideak dira. Beste nonbaiten grabatu izan bagenu, beste soinu bat izango luke, onerako eta txarrerako”.

Zazpi kantaz osatzen da diskoa, guztiak taldekideek beraiek konposatutakoak. Punk rock eta hard rockaren mugan mugitzen diren abestiak dira. “Bizitza guztian entzun dugun musika da. Soinu teknikariak alboan zuen bati galdetu zion ea zer irudituko zitzaion entzun zuena, eta hark esan zuen Rosendoren antza zuela. ‘Ondo goaz!’, pentsatu genuen”, dio harro Ikerrek. “Musika jotzen ikasi genuenean, Ikerrek Bururekin eta nik Llavorekin, gitarren musika hau entzuten genuen. Agian denborarekin aldatzen joango gara, baina ez dut uste”, nabarmendu du Jesus.

Muxarraren hezurra bezain zorrotzak dira bizi dugun garaia dituen arantzak, edo, Golpes Bajos taldeak zioen bezala, garai txarrak dira lirikarako. Garai ilun hau taldearen abes-tietan islatu da. *Bienvenidos a este mundo* kantak ematen dio hasiera diskoari. “Kanta nahiko kritikoa da. ‘Ongi etorriak mundu honetara, non zuen kateen kolorea aukeatzea izango duzuen’, dio. Ez da garaia ‘gora maitasuna!’ edo ‘gora loreak’ abesteko. Entzuten dugun musika ere ez doa bide horretatik. Lanean izorratzen zaituzte eta egiten duzun ezer ez dizute aitortzen. Zer abestu behar duzu? Pozik zaudela? *Yuli* izango da, agian, kanta optimistena eta jipoituta eta izorratuta bizi den emakume baten bizitza kontatzen du”, dio Ikerrek. Errefuxiatuen drama eta bortizkeria matxista dira, hurrenez hurren, kanta hauetan jaso dituzten gaiak.

Taldekideen artean banatu dituzte kantak konposatzeko ardurak. “Gehienbat Hectorrek eta Ikerrek egiten dituzte”, dio Jesus. “Letrak Ikerrenak dira, Jesusen ekarpenekin”, jarraitzen du Hectorrek. “Kanta batzuk Hectorrek eta biok ia bukatuta ekarri ditugu entsegu lokalera, baina beste pare bat lokaleko inspirazio gau batetik ateratakoak dira”, gaineratu du Ikerrek.

Diskoan salmentek behera egin dute azken urteotan. Hori hala izanda, zergatik egin halako inbertsioa? “Denbora luze daramagu musikan, eta ilusioa genuen diskoa formatu fisikoan ateratzeko, jarraitzen gaituen jendeak, familiak, lagunek, zaletuek, gure zerbait izan dezaten”, dio Hectorrek. “Interneten, Bandcampen, jarri dugu, baina ez da gauza bera. Jendeari diskoa zabaltzea, edukia aztertzea eta diskoa gailuan jartzea gustatzen zaio oraindik”.



Ezkerretik: Juanjo, Iker, Hector eta Jesus.

“Ez da garaia ‘gora maitasuna!’ edo ‘gora loreak’ abesteko. Entzuten dugun musika ere ez doa bide horretatik”



Behin disko bat aterata, normala emaitza zuzenekora eramatea izaten da. “Bada, uztailaren amaieran atera genuen diskoa eta ordutik ez dugu kontzertu bat bera ere eman. Sanpedrotan Amaiaiko plazan jo genuen. Oporretan kanpoan egon gara, gero Hector Estatu Batuetara joan zen lan kontuak zirela eta, eta, gainera, bestelako eginbeharrak ere baditugu”, damu da Jesus.

Diskoko zazpi kantak, “eta kanpoan geratu diren beste bizpahiru” dituzte errepertorioa osatzeko. “Bizpahiru bertsio sartzen ditugu beti gure kontzertuetan. Itoizen, Kortaturen eta Delirium Tremensen bertsioak egin ditugu, baita Doctor Deseoren *Corazon de tangorena* ere. Barricadaren bat ere beti

sartzen dugu gure hastapez gogoratzeko”.

“Alemanian jotzeko eskaintza badugu”, dio Ikerrek. “Lagun bat dut han eta musika mota hau entzuten den lokal bat du. Hemengo musika maite du. Diskoa atera genuenean bidali nion eta galdetu zidan ea noiz joko genuen han. Karlsruhe duen lokalean jotzea proposatu zigun, eta nahi izanez gero, Estrasburgon eta Stuttgarten

ere kontzertuak antolatuko zizkigula. Arazoa da Alemaniara joatea dirutza kostatzen dela”. “Ez dugu Getarian edo hemen inguruan jotzen eta Alemaniara joango gara”, erantzun dio Jesussek. “20 urte izango banitu, izan ziur joango nintzatekeela”, dio Hectorrek. “Asmoa hara kotxez ostiral batean joan eta astelehenean bueltatzea zen. Hegazkina jarriko baligute, agian joango ginatke, baina, bestela, 2.400 kilometro egin behar dituzu, eta, gero, agian, inor ez dago kontzertuan”, nabarmendu du Jesussek. “Garbi dagoena da gure musikak ez diola ezer esango zerbait berria nahi duenari, baina bai musika mota hau entzuten duenari. Eskaintzak entzuteko gauden”, amaitu du Ikerrek. ■

AZAROA-ABENDUA

DEIALDIAK

Azaroak 19-26 Xixili eguna ospatzeko musika egitaraua

Azaroak 28-abenduak 3
Euskararen Astea

ERAKUSKETAK

Oxford aretoan

Azaroak 8-26

Indarkeria matxista: Zutik emakumeok!!

Azaroak 30 - abenduak 17

Distira argazki elkarteak - erakusketa kolektiboa

AZAROA

12, igandea

11:00 Hitzaldi ibiltaria Urola

Kosta eskualdeko itsas ondarea ezagutzeko

12:00 Aita Marin antzerkia

haurrentzat: Cletaren ametsa, Gus marionetas

16, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum:

Dunkerque. Zuz.: Christopher Nolan

19, igandea

Parrokian, Xixili eguna ospatzeko,

Behoko Plaza abesbatzarekin Meza nagusia

23, osteguna

18:30 Banda eta Musika eskolaren

kalejira eta entzunaldia

24, ostirala

22:00 Aita Marin antzerkia: Frida, Iris teatro [gaztelaniaz]

25, larunbata

11:30 Parrokian organoaren bisita gidatua eta entzunaldia Iñigo de Pequeren eskutik

20:00 Oxford, Musika Bandaren kontzertua + zine proiektzioa

28, asteartea

19:00 Aita Marin luzemetraia: Bi txirula, Iñigo García zumaiaarrak zuzendua

30, osteguna

19:00 Oxford aretoan, Julene

Azpeitia ipuin lehiaketako sarien banaketa; ondoren, Nigan, ispilu batean bezala emanaldia, Petti eta Irati Jimenezen eskutik

30, osteguna

22:00 Aita Marin zine forum: Lady Macbeth. Zuz.: William Oldroyd

XIXILI EGUNA

18, larunbata

12:30 Musika Eskolako Trikiti taldearekin kalejira

19, igandea

Txistulari Bandaren goiz soinua

Parrokian, Xixili eguna ospatzeko,

Behoko Plaza abesbatzarekin Meza nagusia

23, osteguna

18:00 Musika Banda eta Musika

eskolaren kalejira

18:30 Aita Marin entzunaldia: Musika Eskola eta Musika Banda



24, ostirala

19:30 Komentuan kontzertua: San Pedro abesbatza

25, larunbata

11:30 Parrokian organoaren bisita gidatua eta entzunaldia Iñigo de Pequeren eskutik

20:00 Oxford aretoa Musika Bandaren kontzertua

Zalla *musika*

- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Urdin Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com

BASOIA 12
20750 ZUMAIA
Tel. 943861018 / Fax. 943016125

Zumaia Hotela
*Jateketa
Kafetegia*

Abai auzlegia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

EuroTaller
ZUMAIA MOTOR, S.L.

José Rey Alfaro
Gerente

Santxo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumaiaomotor@telefonica.net

Txomin Agirre kalea 6,
750 Zumaia, Gipuzkoa
T. 943.143.057

www.eduoptika.com

EDU
ZUMAIA
OPTICA

RPS 18/16

HERRILANA



urriak 26
-
azaroak 14



Azurun Taberna

Esperirik asko guztiori.

BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

barne
diseinua

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu gure denda
eraberrituan!



Santiago auzoa, 12

Tel. 943 143 443

www.biyona.net